

Euskararen erabilera bultzatzeko plangintza martxan daukan udal batean ari zara zerbitzua ematen, eta euskara lan hizkuntzat hartua duenez, zure lana antolatzerakoan kontuan hartu behar duzu errealitate hori. Gogoan izan euskararik ez dakitenek euren hizkuntza eskubideak dituzten bezalaxe, euskaldunek ere badituztela, eta errealitate anitz hori egoki gestionatzen asmatu behar dugula. Hortaz, garrantzitsua da aurrean duzun taldearen hizkuntza errealitatea ezagutu eta zure jarduna horretara egokitzea.

Kirol monitoreak zaren aldetik, eredu zara zure taldearen aurrean eta euskararen erabilera bultzatzeko garrantzia handia dauka zure jokoerak.

Jarduerako lehen egunek garrantzi handia dute, orduan finkatzen direlako hizkuntza ohiturak; hasiera hasieratik hizkuntza irizpideen arabera funtzionatzeak berebiziko garrantzia du.

Taldearen harreman informalak ere kontuan izan behar dira. Gune informalean ere taldeko kideekin erlazionatuko zarenez, garrantzitsua da horiek ere zaintzea, harreman formalean jarritako irizpideak eta harreman informaleko egoerak bat etor daitezten.

Ondoren datozen kuadroetan aurkezten dizkizugu zure lanean hizkuntzari dagokionean aurkitu ditzakezun talde motak, horren arabera izan beharreko hizkuntza jokabidea eta talde bakoitzera egokitutako hizkuntza estrategia lagungarriak.


Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzearen prozesua arautzen duenak, hala jasotzen du:

18 d) Udalek kontratazio-arloan erabiliko dituzten neurriak: Hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak bermatuko dituzte.

KIROLA EUSKARAZ PROGRAMA



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

KIROLA EUSKARAZ PROGRAMA

KIROL
IKASTAROETAKO
HIZKUNTZA-
ERREALITATEA
GESTIONATZEN
LAGUNTZEKO
GIDA

ZURE TALDEKO PARTAIDEEK ULERTZEN AL DUTE EUSKARA?

- Kontuan izan Debarroko herri guztietan 30 urtez azpiko ia denek, guztiek ez bada, ulertzen dutela euskara (Udaleko Euskara Zerbitzuak emango dizu datu zehatza).
- Edozein modutan, beharrezkoa da lehen egunetik jakitea zenbatek ulertzen duten euskara (izena emateko orrietan jasota izango duzu). Horren arabera, zuk gidatzen duzun taldeak 3 tipologia hauetakoren bati erantzungo dio, eta zure hizkuntza jokabidea taldearen errealitate horretara egokitu beharko duzu, taldearen ezaugarriak kontuan hartuta:

%50↑

TALDE TIPOLOGIA

Ikasleen erdiak baino gehiagok ulertzen du euskara

IKASTAROKO MONITORE BEZALA IZAN BEHAR DUZUN JOKAERA

Ikastaroa nagusiki **euskaraz** izango da. Adibidez:

- > Agurrak, animozko hitzak, zenbakiak eta esaldi errepikakorrak euskaraz erabiliko dituzu.
- > Azalpenak euskaraz emango dituzu. Premiazkoa ikusten duzunean, laburpena edo bakarkako azalpenak gaztelaniaz emango dizkiezu euskara ulertzeko zailtasunak dituztenei.
- > Idatzizko materiala banatzekotan euskara ulertzen dutenei euskaraz emango diezu eta besteei elebjetan.

%50↓

TALDE TIPOLOGIA

Ikasleen erdiak baino gutxiagok ulertzen du euskara

IKASTAROKO MONITORE BEZALA IZAN BEHAR DUZUN JOKAERA

Ikastaroa nagusiki gaztelaniaz izan arren, **euskarari sarbidea emango diozu**, halakoekin:

- > Agurrak, animozko hitzak, zenbakiak eta esaldi errepikakorrak euskaraz erabiliko dituzu.
- > Azalpen luzeak gaztelaniaz egingo dituzu.
- > Azalpen laburrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzu.
- > Euskara ulertzen dutenei bakarka zuzentzean euskaraz egingo diezu.
- > Idatzizko materiala elebjetan banatuko da.

OHARRA UDALEKO EUSKAR ZERBITZUAK LAGUNTZ ESKAINIKO DIZU

- Idatzizko materialak banatu behar direnean, testuen zuzentasuna eta ulergarritasuna ziurtatzeko (euskarazko fitxa didaktikoaren inguruan informazioa: www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz).
- Hasierako agurrak, animozko berbak, esaldi errepikakorrak, kirol bakoitzeko terminologia bereziarekin zalantzak baldin badituzu.

%100

TALDE TIPOLOGIA

Ikasle denek ulertzen dute euskara

IKASTAROKO MONITORE BEZALA IZAN BEHAR DUZUN JOKAERA

Ikastaroa **euskaraz** izango da

- > Azalpen guztiak euskaraz emango dituzu
- > Idatzizko materialak, banatzekotan, euskaraz banatuko dituzu

